

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoen artean, gure proiektua gauzatzeko lekua behar dugu, eta bi leku nagusi behar izango ditugu: Aneren osabaren tailerra, eta Naroaren lonja. Aneren osabak bere tailerraren zati bat utziko digu gure proiektua diseinatzeko eta martxan jartzeko. Aldiz, Naroaren lonjan gorde egingo ditugu gure bateria portatilak. Modu horretan, gure webgunetik erosten duen bakoitzak, gure lonjatik hartu eta eroslearen etxeraino eramango diogu.

Ildo beretik, webgune online bat dugu, non hainbat baliabide izango ditugun: chat online bezeroen kezka erraz argitzeko, gure proiektuen katalogoa bezeroek haien gustukoa aukera dezaten, gure telefonoa (675897543) eta gmail kontaktua (anelektrolinera@gmail.com)...

Metalak eta mineralak funtsezko eragile bihurtu dira trantsizio energetikorako, batez ere biltegiatze-sistematan erabiltzen baitira, energia berriztagarrietan edo ibilgailu elektrikoetan. Material hauen artean, honako elementuak aurki ditzakegu: Litio, Kobalto, Nikel eta Manganeso.

Baliabide intelektualak eta giza baliabideak betetzeko, Naroa salmentaz arduratuko da, ekonomia ikasten baitu eta marketing-eko praktika batzuk egin baititu. Amarak ideia onak dituenez proiektuan sormena emango duena izango da. Gainera, bere neba ezagutza onak ditu energia berriztagarrian eta oso lagungarria izango zaigu Amarari informazioa emateko eta ezagutzak taldeari emateko. Bestalde, Ane eta Nagorek antolatzeak abilezia dutenez, dena ondo edukitzeaz arduratuko dira dena ondo atera dadin.

Proiektua kostu handiak eskatzen ditu eta ez ditugunez hainbeste aurrezki mailegu bat eskatuko dugu. Modu horretan, proiektua gauzatu ahal izango dugu eta epeka ordaindu.

